

Alfonso M.^a Zabala

Melitona'ren bi senarrak

ANTZERKIA

Euskalerrriaren alde'k argitaratua

Alfonso Maria Zabala, apaiz komediantea

Gorka Bereziartua

1847an Ezkion jaioa, Gasteizen apaiztua, tradizionalista eta, beste edozeren gainera, euskaltzalea. Alfonso Maria Zabala duela 90 urte, 1919an, hil zen Hernanin. Hementxe eman zituen bizitzako azken urteak. Euskal Esnaleako zuzendari izan zen, eta literaturan ere utzi zuen arrastoa, ipuingintzan eta, batez ere, antzerkigintzan.

"Benetako euskaltzalea zan". Hala irakur daiteke *Euskal Esnalean*. Hala deskribatu zuten lagunek, zendu zenean publikatutako hil-berrian. 72 urte zituen azken arnasa ematerakoan. Zabala oso gaztea zenean aldatu zen familia Ezkiotik Zegamara, hangoa baitzen ama. Baina Alfonso ez zen han luzaz geratzekoa: berehala sartu zitzaion apaiz izateko gogoan, eta Gasteizera jo zuen horretarako ikastera. Gazte bihurria zela diote berari buruz kontatu diren pasadi-

zoek. Behin adibidez, apaiz izateko ikasten ari zen garaian, Zegamako festak ailegatu eta ezin liburu artean etsi: alde egin zuen ikastetxetik inori abisatu gabe. Tren geltokira iristean komeriak, txartela ordaintzeko sosik gabe joan baitzen. Eta hala ere festetara nahi. Zer egingo, eta kaleko txakurkume bat galtzarbean hartu, hura saldu, eta korrika leihatilara, billete bila. Etxean formalagoak izango ziren, amak etorri zen bidetik bidali baitzuen atzera.

Ez ziren abenturatxo horrekin bukatu Zabalaren bizitzan kontatzeko daudenak. Gogorragoak jasan beharko zituen gizonduta, 1872an hasi zen Gerra Karlistan. Baina guri hemen haren lan literarioa interesatzen zaigunez, ez gara su horietan sartuko. 1880ra egin behar da jauzi Zabalaren aurreneko idazlanak ikusi ahal izateko. Donostian Jose Manteolak argitaratzen zuen *Euskal-Erria* aldizkarian atera zituen plazara. Denbora batez aldizkarian sail finko bat izan zuen Zabalak, "Neguko arratse-

tan su ondoan kontu-kontari" izeneko, eta umorezko ipuinak kontatzeko baliatu zuen. Hortik aurrera etengabe aritu zen euskara bultzatzeko ahaleginetan: 1881en Irunen ikusten dugu, Manterola bera, Arturo Campion eta Klaudio Otaegi lagun, euskal jaietako literatur sariketako epaimahaia osatzen. Urtebete beranduago bera saritu zuten Hondarribian, "*Ondarrabiko Ama Guadalupekoaren kondaira*" ipuinagatik. Handik bost urtera ikusi zuen argia "*Gabon gau bat*" ipuinak, saritua hau ere Donostiako lore-jokoetan.

Mende berriarekin, Hernanira.

1901ean iritsi zen Zabala Hernanira, erretore izateko. Lehenago Hondarribian, Zegaman eta Donostian aritua zen, baina gurean egin zituen urterik gehienak. "*Zenbat jaiotze, ezkontza eta eriotz idatzi ote zitun Ernani'ko elizako agiri-liburuetan, Jaungoikoak bakarrik daki. Bere eskuz idatziak daude danak, iya bere eriotzako eguna arte*" zioen *Auspoa* bildumako liburu batek Zabalaren erretore garaiaz. Hemezortzi urtek emango zioten lan egiteko, berez lanerako joera zuenari. Bestelako testuak ere idatzi zituen ordea. Hernanin osatu zituen literatur lan garrantzitsuenak Zabalak: antzerkirako prestatu zituenak.

Ez zen goi-mailako antzezlanak egiten tematu. Zabalaren antzerkia herriaren ahotik jasotakoa zen, herriaren belarriari emateko. Komedia laburrak gehienak, daukaten umore ukituarengatik bereizten dira: nonbait, apaiz eskolatik festara alde egiten zuen mutikoak umorezko testuetan aurkitu zuen bihurrikeriak egiteko txoko egokiena gizontzean.

Garaira egokitutako antzerkia.

Bizitzako azken zortzi urteetan idatzi zituen antzezlan guztiak: 1911koak

dira "*Apari merke*" eta "*Periyaren zalapartak*". Bigarren hori, gaur egungo *sketch* bilduma baten tankerakoa izango zen agertoki gainean. Pieza ugariz osatua dago, antzezlanaren parte bakoitzean pertsonaia sorta bat taularatzeko prestatu zuen Zabalak, eta bukaerako eszenan elkartuko dira denen istorioak. Batzen dituen haria Donostiako Santo Tomas eguneko feria da. Han ibiliko dira Gipuzkoa osotik etorritako protagonistak batetik; eta besamotzaren plantak egiten poltsiko guztietan lapurretan ari den pikarokoa, bestetik. Obra honetan ikusiko dugu aurrenekoz Zabalaren ondorengo antzezlanetan behin eta berriro aterako den estilo-marka bat: antzezlanaren hasieran egoera aurkezteko, eta bukaeran agurra emateko, bertso bana idaztea.

1912an "*Jauregi errotoako astoa*" idatzi zuen. Bakarrizketa bat da, errotari batek bere astoari buruz ikusleei kontatua. Formatu txikiko lana, bere garaian Donostiako gaztedi integristarentzat prestatu zuen Zabalak, baita haien biltokian estreinatu ere.

Baina 1918an, hil baino urtebete lehenago egin zituen antzerkian gehien aipatzea merezi duten bi lanak: "*Melitonaren bi senarrak*" eta "*Urruti-izketa*".

Aurrenekoa korapilo batekin abiatzen da: Melitonak bi senar ditu. Tira, bat hilda dago... baina bizi da. Esplikatu dezagun: aurreneko senarrari ez zitzaion gustatzen emakumearen agindupean egotea, eta ahal izan zuenean, lagun batekin Ameriketara egin zuen alde. Laguna Ameriketara iritsi eta gutxira hil, eta Melitonaren lehen senarrak hariak mugitu zituen hildakoa bera zela sinestarazteko. Horrela alargundu zen emakumea, eta bigarren gizon batekin ezkondu. Baina bigarrenak ere emaku-

mea gustuko ez, eta lehenengo senarra kalean aurkitu duenean, hasi zaio kargu hartzen; hasi zaio esaten bueltatzeko emaztearekin; hasi zaio sesio latzean. Eta eztabaida berotzen joango da, Melitonaren diruak tartean azalduko dira... eta inork espero ez duen zerbait gertatuko da. Umore handiz idatzitako obra da, baina gaurko be-turrekoekin begiratuta, nabarmentze-koena zera da: joera integristako apaiz batek hain garbi hitz egitea diruarengatik konpondutako ezkontzez, eta bikotean ezin bizi. Kritikaren bat egitekotan, emakumea fantasma bat dela antzezlanean: berari buruz hitz egiten dute, baina Melitonaren pertsonaia ez da obra osoan agertzen.

"*Urruti-izketa*" berriz, egiturari "*Periyaren zalapartak*" obraren antzekoagoa da, *sketch*en tankerako zati motzekin osatua dagoelako. Baina badu diferentzia bat: titulutik igartzen denez, telefonoa da eszena guztiak elkartzen dituen. Herritar arruntek teknologia berri horrekin harremanetan jartzean izaten dituzten zailtasunak erabili zituen Zabalak publikoaren barrea eragiteko. Baina, barrearekin batera, teknologia hori jende artera ekarri zuen. Horrek zer esan nahi duen? Zabalak ez ziola modernitateari bizkarra ematen. Dena ez zen urte eta zilar ordea garai berriekin, eta modernitate horrek zekartzan buruhauste batzuk eszenatokira igotzen asmatu zuen, garaiko publiko zabalak ulertzeko moduan egin ere.

Mende hasiera gure artean nolakoa izan zen ikusteko muestra polita dira, 90 urte beranduago, Alfonso Maria Zabalaren antzezlanak. Gainera, Interneten daude osorik irakurri nahi dituenarentzat, Armiarma.com webgunean egindako lanari esker: <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00570.htm>. ■